

ERABAKIA, 2018ko URTARRILAREN 22koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO. LAN POLTSA: ADMINISTRARIEN ESKALA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauk agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzeko tresna 2010eko martxoaren 26ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2010eko ekainaren 8ko EHAA, 107. zk.).

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaltzeko behar du lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da C titulazio taldeko pertsonak hautatzea Administrarien Eskalan sor litezkeen premiak betetzeko.

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU

Lehen artikulua.- Deialdia egitea Administrarien Eskalako lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako, erabaki honen I. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Lan poltsa honen bidez beteko diren eginkizunak eta lanpostuak C titulazio taldeko Administrarien eskalakoak izango dira.

Prozesu honetan hautatutako pertsonak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak.

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta beraren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko

epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontaktzen epe biak.

Leioa, 2018ko urtarrilaren 22a

Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea

